



Usurbilgo Udala

USURBILGO UDALEKO SAIL EZBERDINETARAKO IBILGAILU EZBERDINEN HORNIDURA KONTRATUA PRESKRIPZIO TEKNIKOEN AGIRIA

1. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratuaren helburua 3 ibilgailuren horniketa izango da, jarraian aipatuko diren baldintza teknikoekin bat etorriz.

1. lotea: Udaltzaingorako pick-up kamioneta bat
2. lotea: Udal brigadarako turismo kotxe bat
3. lotea: Udal brigadarako kamioneta bat

2. HORNIKUNTZA EMATEKO MODUA

1 Hornidurak honela emango dira:

-Udaltzaingorako ibilgailua: Joxe Martin Sagardia Plaza, z/g, 20.170 Usurbil, Gipuzkoa

-Udal brigadarako ibilgailuak: Zapiura 3-5. Atallu industrialdea, 20170 Usurbil, Gipuzkoa.

Zehazturiko leku horietarainoko garraioa esleipendun(ar)en kontu izango da. Eskaturiko xehetasun guztiak betetzen dituela ziurtatzen denean enpres(et)ako arduradun batek Udal arduradunarekin batera harrera akta sinatuko du.

- 2 Matrikulatuta entregatuko dira eta esleipendunaren kargu izango dira matrikulaziotik sorturiko gastu guztiak.
- 3 Ibilgailuen Azterketa Teknikoa (ITV) eginda entregatuko da.
- 4 Paperean eta formatu digitalean hornidurari dagokion dokumentazio guztiarekin entregatuko da hornidura.
- 5 Nahiz eta ibilgailua hornitu, honek ez baldin baditu eskatutako xehetasun guztiak betetzen ez da harrera aktarik sinatuko.

3.- HORNIDURAREN XEHETASUN TEKNIKOAK



Usurbilgo Udala

1. lotea: Udaltzaingorako pick-up kamioneta bat

Autoa

- motorea: diesel
- potentzia: gutxienez 150 CV
- kolorea: zuria
- modelo: bost pertsona eramateko lekuarekin. Kabina bikoitza, pick-up 4x4
- Ordezkatzeko gurpila
- irratia
- gidari eta gidariaren ondoko airbag-a

Osagarriak

- Tapizeria: telazkoa, kolore beltzean
- Aire egokitua
- Bluetooth sistema
- USB konexioa
- Polizia zerbitzurako led sisteman oinarrituriko bi linterna, bakoitza bere euskarriarekin, gaez trafikoa erregulatzeko homologatua.
- Zamalanerako gunea: Olanaz estalita
- Atoitzeko bola
- Polizia zerbitzurako lotura duten larrialdietarako sirena eta argiak (zubia)
- Talkientzako komunikazio sistamarako instalakuntza izango du (emisora)
- EB homologazio ziurtagiriak

- Ontziratutako PC-a:

Ontziratutako ordenagailuaren instalakuntza, ibilgailuaren maletategian egingo da eta ordenagailuaren babeserako, armairu baten barruan kokatuko da.

Barruko sistema informatikoak ondorengo osagarriak izango ditu:

Ontziratutako ordenagailua, ukipen pantaila (“resistivo ó capacitivo”), USB bidezko edo haririk gabeko teklatua sagu integratuaren aukerarekin, 4 sare portu-dun Routerra/USB portuak/Wifi/GSM/GPRS/3G/4G eta CCTV HD kamera. Telefono mugikorraren operadorearekin



Usurbilgo Udala

Routerraren konexioaren konfigurazioa eta gainontzeko unitate periferikoen (kamera, eskanerra, eta abar) konexioen konfigurazioa esleipendunak egingo du. Ordenagailua Windows XP, 7, 8 (32 edo 64 bits)-ekin konfiguraturuta egongo da.

Armairuaren ezaugarriak: Giltza bidezko zerrailadun metalezko armairua, eta bertan kokatuko dira ordenagailua, routerra, elikatze-sistema, PC-aren itzaldu/piztu kontrol modulu automatikoa, temperatura termostata, haizegailua, bateria kargatzailea eta ibilgailua abitzerakoan tentsio-pikoak ekiditeko paraleloki konektaturiko 12v 12A-tako gelezko bi bateria estanko.

Armairuaren barnealdea beharturiko aireztatzeren bitartez hoztua egongo da eta horretarako albo batean haizegailua izango du eta beste alboan aire sarrera bat. Beharturiko aireztatzea termostatu bidez kontrolaturik egongo da. Armairua maletategiko zoruari torlojuen bitartez finkatuko da.

Elikatze-sistema:

Armairuaren osagaien elikatzea 12V-tan izango da eta kable bidez zuzenean konektatuko da ibilgailuaren bateriara eta fusible baten bitartez babestuko da. Elikatze-sistemaren kommutaziorako beharrezkoa da tenporizatzaile batetik datorren tentsio kontaktua izatea (+12V giltzapean eta tentsioa +12v), modu honetan ibilgailuari kontaktua kendu ondoren, elikatze-sistemaren deskonexio denbora kontrolatu ahal izateko.

Periferikoen Konexioa:

Periferikoen interkonexiorako kableatuak, armairuko barne osagarriak ibilgailuaren aurreko panel eta gordetegian kokaturik dauden gailu desberdinekin konektatuko ditu eta hauek ibilgailuaren alboko paneletatik eta tapizeria azpitik pasatuko dira.

Monitorea ibilgailuaren aurre panelean instalatuko da ahalik eta leku eroso eta eskuragarrienean eta ibilgailuaren barruko segurtasun sistemekin inongo oztoporik izan gabe.

Sistema osoak pizteko eta itzaltzeko bi kontrol modu izango ditu (eskuzkoa eta automatikoa). Ordenagailuaren piztu/itzaldu eta reset eskuzko kontrola, erabiltzaileen eskura egongo diren aurre panelean kokaturiko bi kontrolekin egingo da.

Piztu eta itzaldu kontrol automatikoa, ibilgailuaren kontaktuaren bitartez egiten da eta kontrol modulu baten bitartez kudeatuko da. Kontaktua aktibatzean PC-a automatikoki hasieratuko da.



Usurbilgo Udala

Kontaktua desgaitzean, PC-ak deskonexio progresibo bat abiatuko du, irekita leudekeen aplikazio guztiak itxiz, era honetan sistemaren gelditze kontrolatua lortuz.

Routerra GSM/GPRS sarearekin konektatu ahal izateko, frekuentzia banda honetarako antena batekin konexioa behar du.

4G Router berrietan bi antena izango ditu.

PC-arekin dagoen konexioak egokia izan beharko du, 4 USB portuekin, Ethernet portuekin eta Wifiarekin, periferiko anitz konektatu ahal izateko (adibidez CCTV kamerak, hatz-marka irakurgailuak, PDA, eta abar.)

2. Iotea: Udal brigadarako kotxe turismo bat

- motorea: diesel
- kolorea: zuria
- Gutxieneko potentzia: 75 CV
- Karga bolumen minimoa: 5 eserlekuak jarrita, 750 litrotakoa eta atzeko 3 eserlekuak etzanda 2.800 litrokoa
- Tapizeria: telazkoa, kolore iluna
- modelo: bost pertsona eramateko lekuarekin
- Ordezkatzeko gurpila
- polen filtroa
- gidari eta gidariaren ondoko airbag-a
- ABS balaztak
- larrialdiko balaztaketan laguntzeko asistentzia
- itxiera bateratua
- Aurreko leihoen itxitura elektrikoa
- USB- Bluetooth
- Atezko eserleku eraisgarria (1/3+2/3)
- EB homologazio ziurtagiriak
- Turismo moduan egongo da matrikulatuta



Usurbilgo Udala

3. Iotea: Udal brigadarako kamioneta bat

- motorea: diesel
- kolorea: zuria
- tapizeria: telazkoa, kolore ilunean
- potentzia: gutxienez 121 CV
- modelo: kabina eraisgarria (3 plaza)
- MM: 3.500 kg
- Beheko karrozeria eraisgarria 3,70m luzeran x 2,10m zabaleran x 0,50m kartola alde bakoitzean
- Xaflazko solairua eta indarturiko aurrealdea kabailtearekin- bi kartola lateraletik eta lau sobrekartola 0,50 metrokoak. Desmontagarriak. Atzealdea liburu itxurako bi ateduna, 0,50 metrokoak.
- Ekipo elektrohidrauliko baskulagarria, hiru aldeko funtzio baskulagarriarekin
- Erraminta kaxa
- araudiaren araberako argiak
- EB homologazio ziurtagiriak
- engantxe mistoa, dagokion ziurtagiriarekin

5.-BESTELAKO BALDINTZAK

Ibilgailuak entregatzeko unean, osagarri bezala jarri diren tresna guztiak homologatuak egongo dira, eta errepidean ibiltzeko behar diren tramite guztiak indarrean.

6.-BERMEA

Berme hau hornituriko ibilgailuen garantiari dagokio. Bi urteko beterako finkatzen da gutxienez eta proposamenean zehazten den epean zehar luzatuko da (balorazio irizpidea baita berme epea luzatzea).

Berme epea harrera akta sinatzen denetik hasiko da kontatzen.

Epe honen barruan esleipenduna beharturik egongo da ibilgailuak izan ditzakeen akatsengatik beharrezkoak diren ordezkapenak egitera.

Diseinu edo fabrikazioko akatsen ondorioz errepikakorrak diren matxurak sortzen badira, bermealdian esleipendunak hauek konpontzeko beharrezko neurriak ezarriko ditu.



Usurbilgo Udala

8.-SALDU ONDORENGO ZERBITZUA

Saldu-ondorengo zerbitzuari dagokionez ibilgailuaren osagarri guztien zerrenda aurkeztu beharko du esleipendunak. Osagarri horiekin batera izen komertziala eta erreferentzia aurkeztuko dira. Esleipendunak konpromisoa hartuko du zerrenda hori eguneratuta edukitzeko aldaketaren bat gertatuko balitz.

Esleipendunak, berme epean zehar bermearen barruan dauden konponketa, mantentze eta pieza ordezkapenentarako zerbitzua eskaintzeko maila nahikoa duen kontzertaturiko tailer bat eskainiko du (baldintza hori kontratua sinatu ondoren bete dezake), Usurbilgo Udaletxe eraikinetik 35 kilometroko erradioan. Berme epean dohain eman beharreko zerbitzuaren barne sartuko dira eskulana eta ordezeko piezak.